



Ane Laraudogoitia
Aixerrota BHI, 2015-16

Aurkibidea

Juan Kruz Igerabide	3
Sarrera	3

Motoa

▶ Kokapena	4
▶ Gaia	4
▶ Argumentua	4
▶ Istorioa	5
▶ Pertsonaiak	5
▶ Egituraketa	6
▶ Baliabideak	6
Iritzia	7
Bibliografia - Webgrafia	8

Juan Kruz Igerabide

Juan Kruz Igerabide Sarasola Adunan (Gipuzkoa) jaio zen 1956an, eta bertan bizi da. Maisu ikasketak egin eta irakasle ibili zen zenbait herritan zortzi urtez. Filologia ikasi eta Euskal Filologian doktoregoa egin zuen. Gaur egun, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle da Euskal Filologia sailean. Poesia idatziz eta ikertuz sartu zen literaturaren munduan. Haur literaturako ikerketak ere egin zituen, eta bere lehen liburua, Begi-niniaren poemak izan zen. Geroztik lan ugari argitaratu ditu poesiaz zein prosaz.



Sarrera

Juan Kruz Igerabidek idatzitako obra da hau eta 2012. urtean argitaratu zen. Bere baitan, zenbait gai interesgarri ditu, batez ere nerabearoa bizitzen ari diren irakurleentzako zuzenduta daudenak. Horien artean, nerabearoko amodioak eta bizitzako esperientzia berriak. Honekin batera, adiskidetasunari garrantzia handia ematen dio idazleak. Istorioaren protagonista Igor da eta bere eta bere lagunaren eskutik, gaur eguneko gazte askoren bizipenak aztertuko ditugu.

Istorioan zehar mota desberdinetako pertsonaiak agertzen dira; badaude pertsonaia alaiak eta eskuzabalak (Tripazorro), eta badaude lotsatiak eta sentimenduak kanporatzeko arazoak dituzten pertsonaiak ere (Igor).

Motoa

➤ Kokapena

Gertaera nagusiak Gipuzkoan gertatzen dira, hango herri bateko parke batean, protagonistak “Fu Mantxu” deitzen duen parkean. Horretaz aparte, oso aipagarriak dira herriko zenbait kale ere, horiek baitira droga trapitxeoak egiten diren tokiak.

➤ Gaia

Liburu honen gaia gaur eguneko krisi egoerarekin oso lotuta dago. Izan ere, krisia, gazteen gorabeherak eta adiskidetasuna lotzen ditu idazleak. Oro har, nerabezaroa igarotzen ari diren gazteentzako gaiak azaltzen ditu.

➤ Argumentua

Igor, istorioko protagonistak, moto berri bat erosi du bere aitona utzitako diruarekin. Egun batean, motoan bueltaka dabilela, Irene izena duen bere institutuko neska polit bat ikusten du kalean korrika, bere atzetik dabilen mutil-talde batengandik ihesi. Protagonistak neskari lagundu eta haren taldekoekin ateratzen hasten da. Igor beraiekin egun batzuetan geratzen egon ondoren, neskarekin (Irene) maitemintzen da eta bere betiko laguna (Tripazorro) erabat baztertuta uzten du. Irenek, bere aldetik, Igorren neskalguna bihurtzeko saiakerak egiten ditu, berak eta bere lagun koadrilak duten droga eta lapurreta kontuetan laguntzeko, hau da, Igor erabili nahi dute. Igor honetaz ohartzen denean, haserretu egiten da eta bere arreba eta zenbait lagun laguntzaz, azkenean neska salatzen du eta neska eta bere konplizeak atxilotzea lortzen du.

> Istorioa

Igor, hamabost urteko gazte isila da istorio honetako protagonista. Honek aitona utzitako diruarekin betidanik nahi izandako moto zahar bat erosten du eta bere lagun Tripazorroren laguntzarekin berriztatzea lortzen du.

Egun batean, bi lagunak motoan bueltaka dabiltzala, beraiengana arineketan datorren neska eder bat ikusten dute, Irene. Neskatxa, estualdi batean dago eta motoaz baliatuz berehala salbatzen dute egoera hartatik. Irene, Igorren eskola berberera doa baino urte batzuk nagusiagoa da. Inoiz ez du Igorrekin hitz egin, baina gertatutakoaren ondoren eskerrak emateko, neskatoak Igor gonbidatzen du berarekin eta bere lagunekin geratzera. Igorrek lagunak gustuko izan ez arren, Irenerenganako erakarpena dela-eta taldera biltzen da. Denbora aurrera doan heinean, bien arteko erlazioa sendotu egiten da, Irenek etengabe bereganako duen maitasuna adierazten baitio. Hala ere, gau batean droga eta lapurreta negozioan sartuta daudela eta horretarako erabili egin nahi dutela ohartzen da Igor. Orduan, bere arreba Marinari eta Jexuxi (Tripazorroren aita) kontatzen die gertatzen ari den guztia. Haien laguntzaz eta Tripazorroren laguntzaz aurkitzen dute drogaren ezkutalekua eta berehala anonimoki ertzainei ematen diete informazioa.

Amaieran, jakiten da Ireneren aita ere drogaren kontuan sartuta dagoela eta biak espetxeratzen dituzte. Horren ondoren, Igor aitona utzitako dirutik geratzen zaiona ematen dio aitari, bederatzi mila euro baino gehiago, etxeko-krisi egoera konpontzen laguntzeko.

> Pertsonaiak

Protagonistak

Igor

Istorioko protagonista da. Oso mutil lotsatia eta motoa gidatzea gustuko du. Irenerekin maitemintzen da eta droga saltzaile talde bat harrapatzeko bitartekoa da.

Irene

Igorren eskolara doan neska polita eta liraina da. Igor berarekin maitemintzen da eta droga kontuetan sartuta dago.

Bigarren mailakoak

Jexux

Igeltseroa da, Marina berarekin praktikak egiten dabil. Tripazorroren aita. Honen laguntzarekin aurkitu zuten drogaren ezkutalekua.

Marina

Igorren arreba da, nahiko kontrolatzailea da, Igorren bizitzan gertatzen den guztiaren berri jakin nahi du. Betidanik ikasle ona izan arren, azken boladan askoz ere liberalago dago (etxera nahi duenean heltzen da, ez du ikasten).

Tripazorro

Igor txikitandik babestuta izan duen mutil mardul gizentxa da. Mekanikako ziklo bat egiten ari zen, eta aspalditik aritzen da moto zaharrak desarmatzen eta muntatzen.

Txino

Hasieran Ireneren mutil laguna da. Droga kontuetan sartuta dago.

Karretas eta Arratoi

Txinoren lagunak, biak drogen kontuan sartuta daude.

➤ Egituraketa

Kontaketa era linealean egiten da. Narrazio osoa pertsonaia berberari gertatzen zaionaren inguruan datza. Liburua hiru atal nagusitan banatuta dago: lehenengo zatian pertsonaien aurkezpena eta hasierako egoera aurkezten du; bigarrenean gertakizun nagusiak; eta, hirugarrenean, arazo horiei aurkitutako soluzioak eta amaierako egoera aurkezten ditu narratzaileak.

➤ Baliabideak

Baliabideen artean, bi mota aurkitzen ditugu, espresaerak eta figura literarioak. Espresaerei dagokienez, liburu honetan elkarrizketa ugari daude, horien bidez kontaktzen da istorioa.

Narratzaileak badakizki pertsonaien ekintzak, pentsamenduak eta sentimenduak, hau da, orojakilea da. Hirugarren pertsonan narratzen du.

Figura literarioen artean zenbait aurkitzen ditugu, besteak beste, konparazioak eta metaforak. Konparazioa, bi elementu aztertu eta haien arteko berdintasunak nabarmentzen dituen figura literarioa da. Adibidez:

Marina eta Igor amari besarkaturik geratzen ziren, bakoitza alde batean, txita oilo amaren hegoen azpian bezala. (75)

Metafora, bi osagaien artean dagoen antzekotasunean oinarriturik, errealitate bat beste baten izenarekin ordezkatzeko duen prozedura literarioa da. Adibidez:

Bizitza sator bat bezala bizi daiteke, edo katagorri bat bezala –azaldu zien–. Satorra lur azpian bizi da, itsumustuan lan egiten du, ikuspegi gabe. Katagorriak ere egiten du lana, baina gehiago arriskatu du, jausi egiten du, eta, batez ere, ikuspegi dauka. (52)

Horren bidez, Igorrek aitona esandako hitzak birgogoratzen ditu, non satorra sozializatu gabe eta bakardadean bizitzen denarekin identifikatzen den eta katagorria, aldiz, gauzak egitera ausartzen den pertsona gisa jarduten duen.

Iritzia

Motoa obrak argitalpen txukuna du. Dirudienez, lehenengo argitalpena da eta agian, oraindik ez da oso arrakastatsua gertatu. Azala bereziki deigarria da koloreetan eta bertan agertzen dena ikusita irakurleak susma dezake zer nolako gaiak jorratuko diren kontaketa honetan. Azalean, gazte bat bere motoarekin agertzen da kaleko plaza ilun batean. Motoa egoteak istorioan motoaren garrantzia agerian uzten du eta plazako iluntasunaren bidez pertsonaia bizipenak zailak izango direla ondorioztatzen da.

Obra, bere osotasunean, oso aproposa da nerabezaroa igarotzen ari diren irakurleentzat, haiei zuzenduta baitago. Beren inguruko gaiak aztertzen ditu, esaterako, amodioa, adiskidetasuna, drogen kontua... Hala ere, nahiko aproposa da nerabeen gurasoentzat ere, gazteen bizitzen inguruan eta haien sentimenduak jakiteko, azken batean haiek hobeto ulertu ahal izateko.

Gainera, gainerako kontaketatik bereizgarria egiten duen ezaugarri bat du. Obran badago pertsonaia berezi bat, Marina eta Igorren aitona, eta pertsona horren bidez narratzaileak irakaspenak transmititzen dizkio irakurleari.

Egituraketari dagokionez, hiru zatitan duen banaketa irakurketari azkartasuna emateko baliagarria da.

Lexikoari dagokionez, nahiko erraza gertatzen da, hikan hitz egiten duten unek izan ezik eta letra oso aproposa da ez baita kantsagarria, eta horregatik erraztasunez irakurtzen den liburua da.

Kontaketa, oro har, oso interesgarria da, hainbat kontu irakasten dizkigulako, bereziki gazteei, hala nola, beti norbera baino nagusiagoak eta popularragoak direnek ez direla dibertigarrienak eta beraiek egiten dituzten gauzak ez ditugula guztiok egin behar; esaterako, drogen kontua.

Bibliografia eta webgrafia

- *Motoa*. Juan Kruz Igerabide. Alberdania
- <http://www.galtzagorri.org/euskara/idazleak/juan-kruz-igerabide-sarasola/bibliografia>
- <http://www.erabili.com/>
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/il-hiztegitxoak/il-txokoa/motoa/motoa.pdf>
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>